

# **Txostena**

## **Informe**

**Teknologia eta Berrikuntzarako euskal sarearen  
eraldaketa juridikorako prozesuak**

**Procesos de transformación jurídica de la Red  
vasca de Tecnología e Innovación**

**1996-2000**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco



## AURKIBIDEA / ÍNDICE

SARRERA.....	4
<b>I TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SAREA .....</b>	<b>4</b>
I.1 Definizioa eta aplikatu beharreko araudia .....	4
I.2 Finantzaketa publikoa.....	6
I.3 Eragile teknologikoen izaera juridikoa.....	8
<b>II ERALDATZE PROZESUA.....</b>	<b>9</b>
II.1 Euren era juridikoa aldatu duten eragile teknologikoak.....	9
II.2 Teknologia zentroak .....	10
1. European Software Institute fundazioa.....	10
2. GAIKER fundazioa .....	11
3. INASMET fundazioa .....	11
4. LABEIN fundazioa .....	12
5. LEIA fundazioa .....	13
6. ROBOTIKER fundazioa .....	14
7. TEKNIKER fundazioa .....	14
II.3 Arlokako ikerketa zentroak .....	15
1. Teknologi ikerketarako CIDEMCO zentroa .....	15
2. AZTI-AZTI fundazioa .....	15
II.4 Berrikuntzarako tarteko erakundeak .....	16
1. Makina-erramintaren ikerketarako fundazioa, INVEMA .....	16
2. Altzairuzko egituren erakunde teknikoa (ITEA) .....	17
<b>ONDORIOAK.....</b>	<b>17</b>
1. Eraldatze juridikoaren prozesua fundazioetan .....	17
2. Fundazioek euren gobernu-organoetako kideekin egiten dituzten kontratuak .....	18
3. Gerakinen erabilera .....	19
<b>INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>20</b>
<b>I RED VASCA DE TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN.....</b>	<b>20</b>
I.1 Definición y Normativa Aplicable .....	20
I.2 Financiación Pública.....	23
I.3 Naturaleza Jurídica de los Agentes Tecnológicos.....	24



<b>II EL PROCESO DE TRANSFORMACIÓN .....</b>	<b>25</b>
II.1 Agentes Tecnológicos que han modificado su forma jurídica .....	25
II.2 Centros Tecnológicos.....	26
1. Fundación European Software Institute .....	26
2. Fundación GAIKER.....	27
3. Fundación INASMET .....	27
4. Fundación LABEIN.....	28
5. Fundación LEIA .....	29
6. Fundación ROBOTIKER.....	30
7. Fundación TEKNIKER.....	30
II.3 Centros Sectoriales de Investigación .....	31
1. Centro de Investigación Tecnológica CIDEMCO.....	31
2. Fundación AZTI-AZTI Fundazioa .....	31
II.4 Organismos intermedios de Innovación.....	33
1. Fundación de Investigación de la Máquina-Herramienta INVEMA .....	33
2. Instituto Técnico de la Estructura en Acero (ITEA) .....	33
<b>CONCLUSIONES .....</b>	<b>34</b>
1. El proceso de transformación jurídica en Fundaciones.....	34
2. Contratación de las fundaciones con los miembros de sus órganos de gobierno.....	34
3. Disposición de remanentes .....	35
<b>ANEXOS .....</b>	<b>36</b>
<b>INFORMACIÓN FINANCIERA.....</b>	<b>36</b>
A.1 Fondos Propios .....	36
A.2 Subvenciones de Capital (por fuente).....	37
A.3 Ingresos propios (según cliente) .....	38
A.4 Relación entre financiación pública y privada .....	39



## SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), 2000ko apiriletik 2001eko martxora bitarteko Lan Egitaraua onartu zuenean, teknologia eta berrikuntzarako Euskal Sarearen definizioa eta eraldakuntza juridikoa bere aztergaien zerrendan sartu zuen, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak eskatuta.

Horrela, bada, Sarearen hainbat alderdi aztertu ditugu: Sareari buruzko araudia; Sarea osatzen duten erakundeen izaera juridikoa; erakunde horietako batzuek 1995-2000 bitartean fundazio bihurtzeko egin zuten bidea, eta aldi horretan patronatuetako kideek euren fundazioekin egin zituzten kontratuak.

Eraldatze prozesu horren helburua, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako “Teknologia zentroen sozietate-egiturak aldatzeko hautabideak” izenburuko txostenaren arabera, zentroi egitura juridiko berria ematea zen, finantzabide berriak lortu ahal zituzten euren jardueretarako, edo lehendik zituztenak gehitu, baina euren inpartzialtasuna eta askatasuna murriztu gabe.

Txostenean ez da argitu elkarteak fundazio bihurtzeak nola lagundu dezakeen helburu hori betetzen. Izan ere, hautabide nagusiak (fundazioa, sozietate anonimoa, elkartea, kooperatiba...) eta bakoitzaren sorrera, jarduerak, zerga eta lege araubidea eta gobernu-organoak izan dira txosten horretako aztergaiak.

## I TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL SAREA

### I.1 DEFINIZIOA ETA APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Teknologia Sarea 1997ko apirilaren 29ko 96/1997 Dekretuaren bidez eratu eta arautu zen. Dekretu horretan, hain zuzen ere, ikerketa teknologikoan diharduten erakundeen ezaugarriak eta eginkizunak zehaztu ziren, eta lankidetzak eta koordinazio loturak ezarri ziren horrelako erakundeekin.

Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoaren arloan diharduten erakundeek osatzen dute Sarea. Denek ere eragile teknologikoak direla frogatu dute, 96/1997 Dekretuan ezarritako moduan.

Erakunde horiek EAEko enpresen lehiakortasuna handitzen eta sendotzen lagundu behar dute, teknologiaren eta berrikuntzaren bitartez. Eragile teknologiko guztiek euren jarduera garatzeko giza baliabide eta material egokiak eduki behar dituzte, eta agintari eskudunek antolatzen dituzten politika teknologikoak gauzatzen parte hartu behar dute.



Eragile teknologikoak zazpi kategoriatan sailkatuta daude:

#### TEKNOLOGIA SAREA

KATEGORIA	ONETSITAKO ZENTROEN KP. 2000.12.31n
1.- Teknologia zentroak .....	9
2.- EAEn egoitza duten unibertsitateetako ikerketa zentro, erakunde, sail, atal eta gainerako ikerketa unitateak.....	(1) 4
3.- Arlokako ikerketa zentroak.....	4
4.- I+Gko enpresa-unitateak .....	8
5.- Ziurtapen-erakundeak eta laborategiak .....	3
6.- Ikerketa erakunde publikoak.....	2
7.- Berrikuntzarako tarteko erakundeak.....	10
<b>GUZTIRA</b>	<b>40</b>

(1) Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Eskola Politeknikoa, Deustuko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea

### **1.- Teknologia zentroak**

EAEn egoitza duten erakunde pribatuak dira. Irabazteko asmorik gabe lan egiten dute, teknologia sortu, garatu eta zabaltzeko asmoz.

Euren estatutuetan xedatuta eduki behar dute ezen, zentroa deseginez gero, ondarea zentroaren helburuekin zerikusia duten jardueretarako erabiliko dela, baldin eta zentroak hartutako era juridikoak horretarako bidea ematen badu.

Zentroko partaide gehienak pertsona pribatuak izan behar dira. Hala ere, zentroaren jarduera ez da mugatu behar zentroko bazkide edo laguntzaileengana; era berean, enpresei ez zaie murriztu behar zentroko partaide izateko aukera.

### **2.- EAEn egoitza duten unibertsitateetako ikerketa zentro, erakunde, sail, atal eta gainerako ikerketa unitateak.**

Sarean sar daitezke honelako jarduerak egiten dituztenak: teknologia sortu eta garatzea, eta teknologia transferitu eta zabaltzea, oro har, EAEko enpresa guztietara.

### **3.- Arlokako ikerketa zentroak**

EAEn kokatutako zentro pribatuak dira. Ez dute irabazteko asmorik eta enpresa-arlo jakinetarako teknologia sortzen eta garatzen dute.

Horrelako zentroek estatutuetan xedatuta eduki behar dute ezen, zentroa deseginez gero, ondarea haren xedeekin zerikusia duten jarduerak egiteko erabiliko dela. Zentroko enpresa gehienak zentroak zerbitzu egiten dion arlo berekoak izan behar dira. Zentroaren jarduera ez da mugatu behar zentroko bazkideengana; era berean, enpresei ez zaie murriztu behar zentroko partaide izateko aukera.



#### **4.- I+Gko enpresa-unitateak**

Irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuak dira, egoitza EAEn dutenak. Teknologia sortu, garatu eta berriztatzen dute, jabeen interesetara moldatuz.

Erakunde mota honek berezko nortasun juridikoa izan behar du. Enpresa bakar batek eratu dezake, edo ikerketa eta garapen proiektuei batera ekin nahi dieten enpresen elkarte batek.

EAEko ospitale pribatuetako I+G unitateak ere I+Gko enpresa-unitatetzat jotzen dira, berezko nortasun juridikoa izan eta irabazteko asmorik gabe badihardute.

#### **5.- Ziurtapen-erakundeak eta laborategiak**

Sarean sar daitezke EAEn kokatuta dauden ziurtapen-erakunde pribatuak, berezko nortasun juridikoa izan eta irabazteko asmorik ez dutenak, baldin eta xede hau badute: enpresa, ekoizkin, prozesu, zerbitzu edo pertsona jakinek arau edo zehaztapen teknikoetan ezarrita dauden betekizunak betetzen dituztela egiaztatzea.

EAEn kokatutako laborategi pribatuak ere, berezko nortasun juridikoa izan eta irabazteko asmorik ez dutenak, Sarean sar daitezke, baldin eta xede hau badute: merkatuan dauden ekoizkinek aplikatu behar zaizkien arau edo zehaztapen teknikoak betetzen dituztela egiaztatzea.

#### **6.- Ikerketa erakunde publikoak**

EAEn egoitza duten erakunde publikoak dira. Teknologia sortu, garatu, transferitu eta hedatzeko lanak egiten dituzte, eta bai adostasun-agiriekin zerikusia duten jarduerak ere. Osakidetza Sarean dauden ospitale publikoetako I+G unitateak ere ikerketa erakunde publikoak dira.

#### **7.- Berrikuntzarako tarteko erakundeak**

Erakunde publiko edo pribatuak dira, nortasun juridikoa dutenak, irabazteko asmorik gabekoak, EAEn kokatuak, xede hauek dituztenak: enpresa berriak sortzea, ezagutza eta aplikazio teknologikoak transferitzea, berrikuntza sustatzea, ikertzaile eta teknologoak prestatu eta enpresa-arloan sarraraztea. Teknologia parkeak eta enpresa eta berrikuntza zentroak multzo honetakoak dira.

## **I.2 FINANTZAKETA PUBLIKOA**

1997ko apirilaren 30eko Aginduan xedatutakoaren arabera, Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailak horrelako erakundeak finantzatu ditzake, ikerketa erakunde publikoak izan ezik, fondo galdurako diru-laguntza emanez. Hain zuzen ere, 1997-2000 bitartean diru-laguntza eman du I+G jardueren kostua zati batean finantzatzeko (ikertzaileak, teknikariak



eta bekadunak). Finantzatu beharreko ehunekoa zehazteko, erakundearen ezaugarriak hartzen dira kontuan, hurrengo taulan ageri denez:

KATEGORIA	LAGUNTZAREN GEHIENENKO ZENBATEKOA
Teknologia zentroak.....	ikerketaren munta ekonomikoaren 1/3
Unibertsitateko eragileak.....	aurreko ekitaldiko industri ikerketaren 1/3
Arlokako ikerketa zentroak .....	ikerketaren munta ekonomikoaren 1/4
I+Gko enpresa-unitateak.....	ikerketaren munta ekonomikoaren 1/5
Ziurtapen-erakundeak eta laborategiak .....	ikerketaren munta ekonomikoaren 1/5
Berrikuntzarako tarteko erakundeak	itundutako jardueren kostuaren %90

Diruz lagundu daitezke ikerketa orokorreko proiektuak (EAEko industri sektore edo klusterrentzat interes estrategikoa baldin badute, Industri Politikaren Ekintzarako Esparru Nagusian ezarritakoaren arabera), bai eta espezializazio programak, azpiegituren sorrera eta bestelako jarduera estrategikoak ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak laguntza-araubidea ezar dezake eragileek egiten dituzten jardueri laguntzeko, baina ezin ditu finantzatu Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren diru-laguntza jasotzen duten jarduerak.

Erakunde horiek Sarean sartzeko bide ematen du, gainera, EAEko Administrazioak ikerketa eta garapen teknologikoa sustatu nahirik antolatzen dituen programetan parte hartu ahal izan dezaten.



### I.3 ERAGILE TEKNOLOGIKOEN IZAERA JURIDIKOA

Onetsitako eragile teknologikoak baziren hogeita hamasei 2000ko abenduaren 31rako. Hona hemen beraien xehetasunak eta izaera juridikoa:

ERAGILEA	IZAERA JURIDIKOA	HERRIA
<b><u>Teknologia zentroak</u></b>		
1.-Centro de Estudios e Investigaciones Técnicas de Gipuzkoa (CEIT)	Irab. asmorik gabeko elkartea	Donostia
2.-Fundación European Software Institute (ESI) (*)	Fundazioa	Zamudio
3.-Fundación GAIKER (*)	Fundazioa	Zamudio
4.-Fundación INASMET (*)	Fundazioa	Donostia
5.-Fundación LABEIN (*)	Fundazioa	Bilbo
6.-Fundación LEIA (*)	Fundazioa	Gasteiz
7.-Fundación ROBOTIKER (*)	Fundazioa	Zamudio
8.-Fundación TEKNIKER (*)	Fundazioa	Eibar
9.-IKERLAN, S. Coop. (*)	Kooperatiba	Arrasate
<b><u>Arlokako ikerketa zentroak</u></b>		
1.-Centro de Investigación Tecnológica CIDEMCO (*)	Irab. asmorik gabeko elkartea	Azpeitia
2.-Fundación AZTI-AZTI Fundazioa (*)	Fundazioa	Sukarrieta
3.-Fundación Centro de Tecnologías Aeronáuticas	Fundazioa	Gasteiz
4.-Fundación Vasca para el desarrollo de las tecnologías energéticas (ENERLAN)	Fundazioa	Gasteiz
<b><u>I+Gko enpresa-unitateak</u></b>		
1.-Ametzagana, A.I.E.	Ekonomia intereseko elkartea	Lasarte Oria
2.-Centro Tecnológico IDEKO, A.I.E.	Ekonomia intereseko elkartea	Elgoibar
3.-European Virtual Engineering, S.A. (EUVE)	Sozietate anonimoa	Gasteiz
4.-Fundación CIDETEC	Fundazioa	Donostia
5.-Fundación FATRONIK	Fundazioa	Elgoibar
6.-GUASCOR Investigación y Desarrollo, S.A.	Sozietate anonimoa	Gasteiz
7.-MAIER Technology Center, Soc. Coop.	Kooperatiba	Ajangiz
8.-SIDENOR Investigación y Desarrollo, S.A.	Sozietate anonimoa	Basauri
<b><u>Ziurtapen-erakundeak eta laborategiak</u></b>		
1.-Asociación para la Investigación y Desarrollo en el ámbito del Sector de la Construcción – ERAIKER	Elkartea	Donostia
2.-Maristen Ikastetxea – AZTERLAN	Erljio erakundea	Durango
3.-Instituto de Investigación y desarrollo Tecnológico INBIOMED	Fundazioa	Donostia
<b><u>Ikerketa erakunde publikoak</u></b>		
1.-Centro para el ahorro y desarrollo Energético y Minero, S.A. (CADEM)	Sozietate anonimoa	Bilbo
2.-NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A.	Sozietate anonimoa	Derio
<b><u>Berrikuntzarako tarteko erakundeak</u></b>		
1.-Asociación Centro de Innovación Tecnológica del Medio Ambiente (CITMA)	Elkartea	Donostia
2.-Asoc. Gestión, Desarrollo y Divulgación de la Innovación Tecnológica (UNITEC)	Elkartea	Bilbo
3.-Asociación Vasca de Centros de Investigación Tecnológica (EITE)	Elkartea	Zamudio

.../...





ERAGILEA	IZAERA JURIDIKOA	HERRIA
4.-Centro de Diseño Industrial, S.A.-Industri Diseinurako Zentrua, A.B	Sozietate publikoa	Bilbo
5.-Fundación de Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología	Fundazioa	Zamudio
6.-Fundación de Investigación de la Máquina Herramienta (INVEMA) (*)	Fundazioa	Donostia
7.-Fundación Investigación Universidad-Empresa, Jakintza Laneko Ikerkuntza EUSKOIKER (EUSKOIKER Fundazioa)	Fundazioa	Bilbo
8.-Fundación LASSOA, para la gestión de la innovación en la PYME (LASSOA Fundazioa)	Fundazioa	Bilbo
9.-Instituto Técnico de la Estructura en Acero (ITEA) (*)	Elkartea	Ordizia
10.-Oficina de Transferencia de Innovación – OTRI (UPV/EHU)	Euskal Herriko Unibertsitatea	Leioa

(\*) Aztergai dugun epealdian euren era juridikoa aldatu egin dute.

## II ERALDATZE PROZESUA

### II.1 EUREN ERA JURIDIKOA ALDATU DUTEN ERAGILE TEKNOLOGIKOAK

Aztergai dugun epealdian euren era juridikoa aldatu duten eragileak honako hauek dira:

ERAGILEA	LEHENGO ERA JURIDIKOA	NOIZ ALDATU DEN	ORAINGO ERA JURIDIKOA
<b><u>Teknologia zentroak</u></b>			
Fundación European Software Institute	Elkartea	2000	Fundazioa
Fundación GAIKER	Elkartea	1997	Fundazioa
Fundación INASMET	Elkartea	1996	Fundazioa
Fundación LABEIN	(1)	1998	Fundazioa
Fundación LEIA	Elkartea	(2) 1995	Fundazioa
Fundación ROBOTIKER	Elkartea	1996	Fundazioa
Fundación TEKNIKER	Elkartea	1995	Fundazioa
<b><u>Arlokako ikerketa zentroak</u></b>			
Centro de Investigación Tecnológica, CIDEMCO	Sozietate zibila	1995	Elkartea
Fundación AZTI- AZTI Fundazioa	Sozietate anonimoa	1997	Fundazioa
<b><u>Berrikuntzarako tarteko erakundeak</u></b>			
INVEMA, Fundación de Investigación de la Máquina-Herramienta	Elkartea	1997	Fundazioa
Instituto Técnico de la Estructura en Acero (ITEA)	Sozietate mugatua	1999	Elkartea

(1) Industri saiakuntza eta ikerketako laborategia, Bilboko Industri Ingeniarren Goi Mailako Eskolari atxikitako establezimendua

(2) Elkartea desegin gabe dago txosten hau amaitzerakoan, baina ez du inolako jarduerarik egiten eta ez dauka ez aktiborik ez pasiborik (ikus A.2.1)



## II.2 TEKNOLOGIA ZENTROAK

### 1.- European Software Institute fundazioa

1993ko ekainaren 24an, 14 enpresa pribatuk European Software Institute izenekoa eratu zuten, irabazteko asmorik gabeko elkarte, softwarearen garapenean praktika onak sustatzea helburu zuena. Eusko Jaurlaritzak, 1994ko azaroaren 14an, herri onurako erakunde izendatu zuen. Gainera, Eusko Jaurlaritzarekin 1993ko abenduaren 15ean sinatu zuen akordioaren indarrez, European Software Institute elkarteak “ikerketa teknologikoaren arloko babespeko erakunde” kalifikazioa bereganatua zuen, Eusko Jaurlaritzaren 92/1982 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz.

Asociación European Software Institute-k, 2000ko irailaren 26an egin zuen aparteko Biltzar Orokorrean, Fundación European Software Institute sortzea erabaki zuen. Horretarako, honako hauek jarri zituen: 2000ko urriaren 1ean zeuzkan aktibo eta pasibo guztiak, eta elkartearen fondoak, 2000ko irailaren 30eko Egoeraren Balantzean elkarteak zeukan balio teorikoaren arabera baloratuta (93 milioi pezeta).

Erakunde hau elkarte gisa eratu zenetik, bazkideek eta kide korporatiboek 1.235 milioi pezeta ekarri dituzte, guztira. Gainera, European Software Institute-k Eusko Jaurlaritzarengandik 1.579 milioi pezetako diru-laguntzak jaso ditu, honela banatuta:

DIRU-LAGUNTZAK (E.J.)	Pezetak (milioikoak)
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
EAEn egoitza instalatzea.....	325
1993-1997 bitarteko hitzarmena.....	679
1997-2000 bitarteko hitzarmena.....	575
GUZTIRA	1.579

Egoitza instalatzeko Eusko Jaurlaritzak eman dizkion laguntzak honela banatu dira: lehen kokapenerako laguntza, 325 milioi pezeta; European Software Institute-ren bulegoak dauden eraikina dohainik erabiltzeko lagapena, urtean 80 milioi pezeta, 1999ko bideratze-proiektu estrategikoan azaltzen zen balorazioaren arabera; eta beste laguntza batzuk, eraikineko zerbitzuei dagozkienak (energia, mantenimendua, garbitasuna).

Europar Batasunak (EB) 969 milioi pezeta eman dizkio, denetara. European Software Institute-k akordio bat sinatu zuen 1994ko urtarrilaren 7an eta osagarritzko beste bat 1995eko otsailaren 27an, eta horien indarrez ustiapen-gastu jakin batzuetarako diru-laguntza jaso zuen hiru urtean, baina baldintza hau bete behar zuen: EBtik kanpoko baliabideak lortzea. 1997ko otsailaren 27an akordioaren luzapena sinatu zen eta EBk European Software Institute-ri beste bi urtez diru-laguntza emango ziola agindu zion, 1999ko urtarrilaren 7a arte, hain zuzen.



## **2.- GAIKER fundazioa**

Asociación Centro Tecnológico GAIKER elkarteak, 1996an, EAEko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeko xedapenei lotutako ikerketa-fundazioa eratzea erabaki zuen.

Hasierako ondare-hornidura gisa, elkarteak 1996ko abenduaren 31n erregistraturik zeuzkan aktibo eta pasibo guztiak jarri zituen, izaera unibertsaleko ekarpenean. Ekarpene horren zenbatekoa 122 milioi pezeta izan zen, egun hartan auditatu zen balantzearen arabera.

Fundazioaren xedea hau da: zientzi eta teknologi ikerketako jarduerak sustatu eta garatzea eta teknologiaren berrikuntza bultzatzea, eta ekonomiaren garapenarekin zerikusia duten jarduerak egitea, industriarentzat, oro har, onuragarriak direnak.

Estatutuen 16. artikuluan ezarrita dagoenez, fundazioaren patronatuko kideetako bi ikerketaren arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailen ordezkariak izan behar dira; beste bat Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria izan behar da; beste bat Euskal Herriko Unibertsitatearena; araubide bereziko enpresa laguntzaileek lau ordezkari izan behar dituzte patronatuan, araubide arrunteko enpresa laguntzaileek hiru ordezkari, eta araubide erraztuko enpresa laguntzaileek, ordezkari bat.

GAIKER fundazioaren estatutuen 35. artikulua dioenez, inoiz fundazioa likidatzen bada, geratzen diren ondasun eta eskubideak Bizkaiko Foru Aldundiari eman behar zaizkio fundazioak izandako xedeen antzeko helburuetarako erabil ditzan.

Aztertzen ari garen aldian, GAIKER fundazioak Azpiegitura, S.A.ri (Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko sozietate publikoa) alokatutako eraikin batean egin ditu bere jarduerak, Zamudioko Teknologi Parkean. Eraikinak urtean gutxi gorabehera 26 milioi pezetako kostua dauka.

Errentamendu kontratuaren indarraldia 1997ko ekainaren 1ean amaitu zen. Errentamendua amaitutakoan, errentatzailea eta errentaria ados jarri gero, errentariak eraikina erosi ahal izango zuela jarri zen kontratuan, eta horrela egitekotan, ordaindutako errentak salmenta-prezioaren ordainketatzat joko zirela.

2001eko ekitaldian, Azpiegitura, S.A.k Adefisa Leasing EFC, S.A.ri saldu dizkio lokal horiek, 480 milioi pezetatan.

## **3.- INASMET fundazioa**

Asociación de Investigación Metalúrgica del País Vasco (INASMET) elkarteak, 1996an, EAEko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeko xedapenei lotutako ikerketa-fundazioa eratzea erabaki zuen. Hasierako ondare-hornidura gisa, elkarteak 1996ko abenduaren 31n erregistraturik zeuzkan aktibo eta pasibo guztiak jarri zituen, izaera unibertsaleko ekarpenean. Ekarpene horren zenbatekoa 356 milioi pezeta izan zen.

Elkartea 1962an eratua zen. Gipuzkoako hainbat galdaketa-enpresak sortu zuten.

INASMET fundazioaren xedea hau da: industriarentzat, oro har, onuragarriak diren jarduerak sustatu eta garatzea zientzi ikerketaren eta teknologiaren garapenaren eremuetan.



Estatutuen 16. artikuluan ezarrita dagoenez, fundazioaren patronatuko kideetako bi ikerketaren arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailen ordezkariak izan behar dira; beste bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria izan behar da; beste bat Euskal Herriko Unibertsitatearena; araubide bereziko enpresa laguntzaileek sei ordezkari izan behar dituzte Patronatuan, araubide arrunteko enpresa laguntzaileek beste sei ordezkari. Patronatuak 2000ko abenduaren 31n 18 kide zituen eta Donostiako Udala haietako bat zen.

1997an, Donostiako Udalak INASMET fundazioari dohainik laga zion, 75 urterako, Udalaren lurzati baten gaineko azalera-eskubidea. Lurzati hori Miramonen (Donostia) dago eta INASMET fundazioak dagoeneko hasi ditu bere egoitza berria bertan eraikitzeko obrak.

#### 4.- LABEIN fundazioa

1998ko ekainaren 4an, Eusko Jaurlaritzak, UPV-EHUK, Bilboko Merkataritza, Gintza eta Itsasketa Etxeak, Iberdrola, S.A.k, BBV, S.A.k, Euskadiko Kutxak eta beste batzuek LABEIN fundazioa eratu zuten, EAeko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeko xedapenen menpean. Hasierako ondare-hornidura honela banatu zen:

Pezetak (milioikoak)	
FUNDATZAILEA	ZENBATEKOA
Diru-ekarpena, sektore pribatua .....	221
Iberdrola, S.A., Burtzeñako lurak .....	194
Eusko Jaurlaritza, José de Torrónategui lab.....	438
GUZTIRA	853

Eusko Jaurlaritzak industri saiakuntza eta ikerketako “L. J. Torrónategui” laborategia jarri zuen. Laborategi hori Industria eta Hezkuntza Nazionaleko ministerioek 1965eko abuztuaren 31n batera emandako aginduaren bidez sortu zen, eta Bilboko Industri Ingeniarien Goi Mailako Eskolari atxikitako ikerketa teknologikoko zentroa izan zen ordu arte.

Estatuak 1980an EAeri intsuldatu zion laborategia. 1997an laborategiaren erakundea iraungi egin zen, laborategiaren patronatuak hala erabaki eta Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak berretsi ondoren, eta laborategiaren ondare osoa LABEIN fundazioa eratzeko erabili zen.

Estatutuen arabera, kide hauek izan behar ditu fundazioaren patronatuak: berezko zortzi kide, hasierako erakunde fundatzaileen ordezkariak; eta hautatutako kideak, hamabi-hamazazpi bitartekoak, enpresak eta beste erakunde batzuk ordezkatzeko dituztenak.

Berezko kideek erakunde hauek ordezkatzeko dituzte: Eusko Jaurlaritza (2), Bizkaiko Foru Aldundia (1), Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (3), Bilboko Merkataritza, Gintza eta Itsasketa Etxea (1) eta Bilboko Udala (1).

Kide hautatuak, berriz, patronatuaren osatzaileek izendatzen dituzte, berezko kide ez diren, kide fundatzaileak diren edo fundatzaileekin parekatutako kide numerarioak diren enpresa edo erakundeek aurkezten dituzten hautagaien artean.



## 5.- LEIA fundazioa

LEIA fundazioa, EAEko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeko xedapenei lotuta, 1995eko uztailaren 6an eratu zen. Haren xede nagusia hauxe da: enpresa-ekimen berriak sustatu, bultzatu, garatu eta laguntzea, jarduera-eremu guztietan, eta bereziki ikerketa eta garapen teknologikoa eta teknologiaren berrikuntza dakartzaten horietan.

LEIAren ondare-hornidura hurrengo ekarpenez osatu zen:

	Pezetak (milioikoak)
FUNDATZAILEA	ZENBATEKOA
Arabako Foru Aldundia.....	50
Vitoria-Gasteizko Udala .....	30
Caja de Ahorros de Vitoria y Álava.....	10
Sindicato Empresarial Alavés eta berari lotutako erakundeak (SEA) ...	100
GUZTIRA	190

Fundazioak, 1996ko ekitaldian, bere gain hartu zituen ordu arte Asociación para la Gestión de Laboratorios de Ensayos Industriales de Álava – LEIA elkarteak egiten zituen jarduerak. Elkarte hori 1988an eratu zuten Arabako Foru Aldundiak, Sindicato Empresarial Alavés erakundeak, Agrupación Vasca de Centros de Investigación (EITE) elkarteak eta bi pertsona fisikok, Eusko Legebiltzarraren 3/1988 Legearen babesean, lege horrek elkarteak arautu baitzituen.

1996-1999 bitarteko ekitaldietan fundazioak elkarte horren ekipo eta instalazioak erabili ditu; horien alogeragatik urtean 4 milioi pezeta ordaindu ditu, gutxi gorabehera. Fundazioak 2000. urtean 10 milioi pezetako zenbateko garbian erregistratu ditu elkartearengandik jasotako ondasun, eskubide eta obligazioak, enpresa-ondarearen eskualdaketaren ondorioz. Kopuru hori LEIA fundazioari ekarri zaio, Sindicato Empresarial Alavés (SEA) bazkide fundatzaileari eta berari lotutako erakundeei dagokien fundazio-hornidura gisa.

Txosten hau amaitzerakoan elkarte desegin gabe dago, baina ez du inolako jarduerarik egiten.

Fundazioak hasieran bere jarduerak egiteko erabili zituen eraikina eta instalazioak PRINIA Foru Sozietate Publikoarenak ziren.

LEIA fundazioak bere jarduerak egiteko gaur egun erabiltzen dituen lurrak eta eraikinak 1997an erosi zitzaizkion, 213 milioi pezetatan, Alava, Agencia de Desarrollo erakundeari. Saltzaileak 20 urterako eta urteko %3ko korrituekin eskaini zuen ordainketa geroratuaren bidez finantzatu ziren.

Fiskalizatutako aldian, LEIA fundazioak 337 milioi pezetako erosketak eta 772 milioi pezetako salmentak egin dizkie SEAko enpresei.



## 6.- ROBOTIKER fundazioa

Asociación Centro Tecnológico ROBOTIKER elkarteak 1985eko uztailaren lehen eratu zen, irabazteko asmorik gabeko elkarte gisa. Honakoak izan zitezkeen elkarteko kide: automatizazio sistemen eta produktuen fabrikatzaileak, horrelako sistemen erabiltzaileak eta irabazteko asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuak.

1996ko abenduaren 20an, Asociación Centro Tecnológico ROBOTIKERen Biltzar Orokorrak ROBOTIKER fundazioa sortzea erabaki zuen. Horretarako, abian zen Centro Tecnológico ROBOTIKER enpresa jarri zuen, bere aktibo eta pasibo guztiekin. 1996ko abenduaren 31n itxitako balantzearen arabera, 314 milioi pezetako ekarpena egin zuen.

Fundazioaren xedea honakoa da: enpresentzat, oro har, onuragarriak diren zientzi ikerkuntzako jarduerak sustatu eta garatzea eta teknologiaren berrikuntza bultzatzea.

Estatutuen 16. artikulua arabera, haren patronatuko kideetako bi ikerketaren arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailen ordezkariak izan behar dira; beste bat Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria izan behar da; beste bat Euskal Herriko Unibertsitatearena; araubide bereziko enpresa laguntzaileek lau ordezkari izan behar dituzte Patronatuan, eta araubide arrunteko enpresa gisa kalifikatu gabeko enpresa laguntzaileek beste lau ordezkari.

ROBOTIKER fundazioa Azpiegitura, S.A.ri (Bizkaiko Foru Aldundiaren menpeko sozietate publikoa) alokatutako eraikin batean egiten ditu bere jarduerak, Zamudioko Teknologi Parkean. Eraikin horren urteko errenta gutxi gorabehera 27 milioi pezetakoa da.

2001eko ekitaldian Azpiegitura, S.A.k Adefisa Leasing EFC, S.A.ri saldu dizkio lokal horiek, 422 milioi pezetatan.

Estatutuen 35. artikulua dioenez, inoiz fundazioa likidatzen bada, geratzen diren ondasun eta eskubideak Bizkaiko Foru Aldundiari eman behar zaizkio fundazioak izandako xedeen antzeko helburuetarako erabil ditzan.

## 7.- TEKNIKER fundazioa

Asociación de Investigación TEKNIKER elkarteak, 1981ean sortuak, EAeko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeko xedapenen menpeko ikerketa-fundazioa eratzea onetsi zuen 1995ean.

Fundatzaileak, TEKNIKER fundazioarentzako hasierako ondare-hornidura gisa, 1995eko abenduaren 31n erregistraturik zeuzkan aktibo eta pasibo guztiak jarri zituen, izaera unibertsaleko ekarpenean. Ekarpene horren zenbatekoa 674 milioi pezeta izan zen, egun hartan auditatu zen balantzearen arabera.

TEKNIKER fundazioaren xedea honakoa da: industriarentzat, oro har, onuragarriak diren zientzi ikerketa eta teknologiaren garapenaren arloko jarduerak sustatu eta garatzea.

TEKNIKER fundazioaren patronatuak 18 kide ditu, horietako bi Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak, bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria, bat Elgoibarko Udalaren ordezkaria eta beste bat Eibarko Armagintza Eskolako Ikasle Ohien Elkartearen ordezkaria.



Estatutuen 34. artikulua dioenez, inoiz fundazioa likidatzen bada, geratzen diren ondasun eta eskubideak Eibarko Armagintza Eskolako Ikasle Ohien Elkarteari eman behar zaizkio fundazioak izandako xedeen antzeko helburuetarako erabil ditzan.

## II.3 ARLOKAKO IKERKETA ZENTROAK

### 1.- Teknologi ikerketarako CIDEMCO zentroa

Centro de Investigación Tecnológica CIDEMCO 1988ko apirilaren 11n eratu zen, sozietate zibil eran. 1995eko ekainaren 6an desegin egin zen, eta Asociación Centro de Investigación Tecnológica CIDEMCO elkarteak hartu zuen haren ondarea; elkarte hori Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legearen xedapenen menpe dago.

Hona zein den zentroaren xedea: ekintza egokiak garatzea, teknologia, kalitatea, lehiakortasuna eta zabalkuntza sustatzearen, altzarigintza, eraikuntzako aroztzintza eta zuraren eraldakuntza sektoreetan eta industri sektore horien osagarri diren enpresetan, nola nazioan hala atzerrian.

Sozietate-funtsa, 2000ko abenduaren 31n, 6 milioi pezetakoa zen. Kopuru horretatik 5 milioi, desegin zen sozietate zibilaren ondaretik datoz. Bazkide guztiak altzarigintzarekin zerikusia duten enpresak dira.

### 2.- AZTI fundazioa

1997ko azaroaren 28an, AZTI, S.A.k (EAEko Administrazioak %100eko partaidetza zeukan sozietatea), gaur egun NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A. deitzen denak, Teknologia eta Ikerketa Zentrua, S.L.rekin batera (TEIZE, S.L.), AZTI fundazioa eratu zuen, EAEko Fundazioei buruzko 12/1994 Legean xedatutakoari lotuta. Sorrerako hornidura 252 milioi pezetakoa izan zen. NEIKER S.A.k, bereizketaren bidez, bere jarduera jarri zuen ekarpen gisa, alegia, nekazaritza-elikadura, arrantza, ozeanografia eta ingurumen zientziak eta, oro har, baliabide naturalekin eta ingurumenarekin zerikusia duten zientziak lantzea eta alor horietan ikerketak egitea.

Geroago, EAEko Administrazioak eta NEIKER, S.A.k ekarpen bana egin zuten, sorrerako hornidura gisa, hurrenez hurren 270 milioi pezetakoa eta 91 milioi pezetakoa. Horrenbestez, 2000ko abenduaren 31 arte ekarpen hauek egin ziren:

Pezetak (milioikoak)	
ERAKUNDEA	ZENBATEKOA
NEIKER, S.A. ....	333
EAEko Adm. ....	270
Teize, S.L. ....	10
<b>GUZTIRA</b>	<b>613</b>



Fundazioak ikerketak eta ikerlanak sustatzen ditu nekazaritza-elikadura, ozeanografia, arrantza eta ingurumen zientzien inguruan, eta, oro har, baliabide naturalekin zerikusia duten alorretan.

Bi eraikinetan eduki ditu bulegoak. Lehenengo eraikina EAeko Administrazioarena zen eta bertan egon zen 1999ko otsailaren 28tik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiarekin itundutako trukaketa baten bidez; bigarrena Gipuzkoako Foru Aldundiarena zen. Bi eraikin horiek doan erabiltzen utzi zitzaion fundazioari. 2000ko abenduan, fundazioak bigarren eraikinetik alde egin zuen, eraikin berri batera aldatzeko.

Lan-zentro hori 2001eko erdialdean bukatzekoa da, eta 365 milioi pezetako kostuak ekarri ditu. Kopuru horri ekipamenduaren kostua gehitu behar zaio, 21 milioi pezeta inguru.

Egoitza hori eraikitzeko, portu aldeko 1.440 m<sup>2</sup>-ko lurzati publikoa hartu du. Izan ere, eraikina egiteko lurrak eta inguruko instalazioak 30 urterako laga zaizkio, 1999. urtetik hasita, baina ikerketa jarduerak egiteko baino ezingo ditu erabili.

Obra horiek ordaintzeko, NEIKER, S.A.k, 2000ko ekitaldian, fundazio-hornidura gisa, 91 milioi pezeta jarri ditu. Gainera, fundazioak 190 milioi pezetako diru-laguntzak jaso ditu guztira, eraikin hori egiteko. Hona hemen laguntzen xehetasunak:

Pezetak (milioikoak)	
ERAKUNDEA	ZENBATEKOA
Gipuzkoako Foru Aldundia .....	100
Eusko Jaurlaritza .....	50
Zientzia eta Teknologia Ministerioa .....	40
GUZTIRA	190

2000ko abenduaren 31n fundazioaren patronatuak 14 kide zituen. Horietatik zazpi NEIKER, S.A.ren Administrazio Kontseiluak berariaz izendatuta hautatzen dira, 5 Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak direla, eta beste biak arrantza sektorearen ordezkariak. Gainerako zazpiak Teize, S.L.ren Administrazio Kontseilua berariaz izendatuta hautatzen dira.

## II.4 BERRIKUNTZARAKO TARTEKO ERAKUNDEAK

### 1.-Makina-erremintaren ikerketarako fundazioa, INVEMA

Asociación de Investigación Industrial de la Máquina Herramienta-INVEMA izeneko elkarteak 1.765/1961 Dekretuaren itzalpean eta haren xedapenei loturik eratu zen. Asociación Española de Fabricantes de Máquinas-Herramienta (AFM) elkarteak, AFMko kide ziren makina-erreminta fabrikatzaileek eta makina-erremintarekin zerikusia zuten beste lau sozietatek osatu zuten.

INVEMA, Asociación de Investigación Industrial de la Máquina-Herramienta elkarteak 1997ko abenduaren 22an fundazio bihurtu zen. INVEMA, Fundación de Investigación de la Máquina-Herramienta izena hartu zuen eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioko Irakaskuntza Fundazioen Erregistroan inskribatu zuten 1998ko ekainaren 8ko ebazpenaren bidez.





Fundazio honi 30/1994 Legea aplikatu behar zaio (Fundazioei eta Erakunde Pribatuek Onura Orokorreko Jardueretan parte hartzeko Zerga-Pizgarriei buruzko Legea) eta bai lege horren osagarritzko xedapenak ere. Patronatuak 10 kide ditu. Estatuko Administrazio Orokorrak patronatuan parte hartzen du, Zientzia eta Teknologia Ministerioaren bidez.

Hau da fundazioaren helburua: makina-erremintak eta horien osagaiak fabrikatu eta erabiltzeko hobekuntza teknikoak aztertu eta ikertzea, aholku ematea eta hobekuntzak enpresetara zabaltzea.

Hasierako ondare-hornidura 14 pezetakoa izan zen. Fundazioak jarri zuen kopuru hori, abian zeukan enpresari lotutako aktibo eta pasibo guztien ekarpen unibertsala eginez, fundatzaileak 1997ko abenduaren 31n itxitako balantzearen arabera.

## 2.-Altzairuzko egituren erakunde teknikoa (ITEA)

Instituto Técnico de la Estructura en Acero izeneko elkarteak 1999ko martxoaren 2an eratu zen, Elkartei buruzko 191/1964 Legean xedatutakoaren itzalpean. Instituto Técnico de la Estructura en Acero, S.L. sozietateko bazkideek sortu zuten; denak ere egitura-altzairua ekoizten zuten enpresak, banaketa eta zerbitzu zentroak edo egitura-fabrikatzaileak ziren.

Elkartearen xedea honakoa da: altzairua eraikuntzan erabil dadin sustatzea, horrelako produktuen ordezkoak ikertzea, eta metalezko egituren arloko eragiketak, ekintzak eta negozio juridikoak egitea.

Elkarteak Ordiziako Udalaren lokal batean kudeatzen ditu bere jarduerak. Udalak batere kontraprestaziorik gabe laga dio lokal hori.

## **ONDORIOAK**

### **1.- Eraldatze juridikoaren prozesua fundazioetan**

EAEko 1995. urteko Aurrekontu Orokorrean, Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren "Teknologia" programaren memorian, babespeko teknologia zentroyen egitura eta alderdi juridikoak sendotzeko diseinua aipatzen zen, garatu beharreko jardueren artean. 1996 eta 1997ko ekitaldietako aurrekontuetan, berriz, industri enpresen partaidetzaren bidez zentro teknologikoen sozietate- eta lege-egitura aldatzeko asmoa agertu zen. Prozesu hori, EAEko 1998ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrearen arabera, ekitaldi horretan bukatzekoa zen.

1997-2000 aldirako Zientzia eta Teknologia Planean, EAEko oinarri teknologikoen azpiegituren azterketaren barruan teknologia zentroyen egoera aztertu zenean, beharrezkotzat jo zen teknologia zentroyek egitura juridiko sendoagoa eta enpresen partaidetza handiagoa izatea. Teknologia zentroyen funtzionamendu-eredu berriaren abiaburu nagusia hauxe zen: industrien ingurune lehiakor berriaren, teknologiaren bilketa eta identifikazioa eskuarki merkatuan gertatzen dela onartu beharra zegoen. Ikuspegiaren aldaketa horren ondorioz, komeni zen zentroyen sozietate-egiturak aldatzea, enpresa pribatuek benetan parte hartu ahal izan zezaten haien jardunean eta garapenean.



Finantza berrien lorpenari dagokionez (horixe baita eraldatze prozesuaren helburu estrategikoa), eragileek, fundazio bilakatu eta gero, erakunde pribatuengandik sorrerako ekarpen hauek jaso dituzte 2000ko abenduaren 31 arte:

ZENBATEKOA		
ZENTROA	Euroak (milakoak)	Pta (milioikoak)
Fundación GAIKER.....	109	18
Fundación INASMET.....	258	43
Fundación LABEIN.....	2.494	415
Fundación LEIA.....	661	110
Fundación ROBOTIKER.....	144	24
GUZTIRA	3.666	610

## 2.- Fundazioek euren gobernu-organoetako kideekin egiten dituzten kontratuak

EAEko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 14. artikulua dioenez, gobernu-organoko kideek ezin dute kontraturik egin fundazioarekin, ez euren izenean ezta besteren izenean ere, Babesletzak baimenik ematen ez badie.

EAEko fundazioen babesletzaren eta erregistroaren antolamendu eta jardunbideari buruzko Araudiak (4041994 Dekretua) 39. artikuluan dioenez, gobernu-organoko kideek fundazioarekin kontraturen bat egin nahi dutenean, Babesletzari eskabidea aurkeztu behar diote, eta bai egiaztagiri egokiak ere, egin nahi duten kontratua babestu beharreko inongo interesen aurkakoa ez dela frogatzeko. Babesletzak ebatzi behar du baimen-espedita, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak aldeko txostena eman eta gero. Babesletzari eskabidea aurkeztu eta handik hiru hilabetera espedita berariaz ebatzi gabe badago, Administrazioak isilbidez ebatzi duela ulertuko da.

Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko erakundeetan, patronatuko enpresak dira, aldi berean, erakundearen bezero nagusiak. Beraz, neurri handian eragiten diete aurreko paragrafoan aipatutako kontrataziorako mugek.

Fiskalizatutako aldiak, fundazioek ez diote Babesletzari baimenik eskatu legeak agindu bezala; egindako kontratazioen berri eman diote, besterik gabe.

Fundazioek euren patronatuetako kide diren enpresei egindako zerbitzuengatikoko fakturazioa honela izan da:



FUNDAZIOA	Euroak (milakoak)		Pezetak (milioikoak)	
	SARRERAK	GASTUAK	SARRERAK	GASTUAK
Fundación AZTI-AZTI Fundazioa.....	925	6	(1) 154	1
Fundación Centro de Tecnologías Aeronáuticas (CTA) .....	974	950	(2) 162	158
Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología.....	10.331	-	1.719	-
Fundación CIDETEC.....	403	-	67	-
Fundación FATRONIK .....	1.569	54	261	9
Fundación EUSKOIKER .....	974	-	162	-
Fundación GAIKER .....	1.136	102	189	17
Fundación INASMET.....	4.634	-	771	-
Fundación LABEIN .....	1.412	186	235	31
Fundación LASSOA .....	-	42	-	7
Fundación ROBOTIKER .....	3.876	-	645	-
Fundación TEKNIKER (3).....	Datuak ez daude eskura			
GUZTIRA	26.234	1.340	4.365	223

(1) Patronatuan ordezkari izendatuak dituzten enpresei fakturatutako zenbatekoak.

(2) Ez dira kontuan hartu Gamesa taldeko sozietateei fakturatutako zenbatekoak, guztira 84 mila euro (14 milioi pezeta), ezta sektoreko enpresak kide dituen Cluster de Aeronáutica – Hegan taldeari fakturatutako 448 mila euroak ere (74 milioi pezeta).

(3) Patronatuko kideak pertsona fisikoak dira, TEKNIKER elkarteak (elkarte fundatzailea) edo patronatuak berak izendatutakoak. TEKNIKER fundazioak ez dauka daturik patronatukideen enpresei buruz.

### 3.- Gerakinen erabilera

Elkarte batzuek (Gaiker eta Robotiker teknologia zentroak) euren estatutuetan ezarri zuten ezen, elkarte deseginez gero, gerakina Bizkaiko Foru Aldundiari eman behar zitzaiola antzeko xedeetarako erabil zezan. Elkarte horien ordezkari sortu diren fundazio berriek ere euren estatutuetan Bizkaiko Foru Aldundiarentzako berme horri eutsi diote.



## INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP), a petición de la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco ha incluido en el Plan de Trabajo aprobado para el periodo abril 2000-marzo 2001, el análisis de la definición y procesos de transformación jurídica de la Red Vasca de Tecnología e Innovación.

A tal fin hemos analizado la normativa que regula la Red; la naturaleza jurídica de las entidades que la componen; el proceso de la transformación de algunas de estas entidades en fundaciones entre los años 1995 y 2000, así como los contratos celebrados en dicho periodo entre los miembros de cada patronato y sus respectivas fundaciones.

Según el informe, **“Alternativas a la modificación de estructuras societarias de los Centros Tecnológicos”**, elaborado por el Departamento de Industria, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, el objetivo era dotar a los centros de una nueva estructura jurídica que les permitiera obtener nuevas fuentes de financiación para sus actividades o un aumento de las existentes sin menoscabo de su imparcialidad e independencia.

El informe no define las razones por las que el cambio de asociación a fundación contribuye a lograr este objetivo, limitándose a analizar las principales alternativas existentes (fundación, sociedad anónima, asociación, cooperativa...), su forma de creación, actividades que pueden desarrollar, régimen fiscal y legal, órganos de gobierno.

## I RED VASCA DE TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN

### I.1 DEFINICIÓN Y NORMATIVA APLICABLE

El decreto 96/1997, de 29 de abril de 1997, que constituye y regula la **Red Vasca de Tecnología**, determina las características y funciones de las entidades de investigación tecnológica y establece las relaciones de colaboración y coordinación con las mismas.

La Red está formada por las entidades de investigación, desarrollo e innovación tecnológica que se han acreditado como agentes tecnológicos según el decreto 96/1997.

Sus actividades deben contribuir al desarrollo y fortalecimiento de la capacidad para competir de las empresas establecidas en la CAPV a través de la tecnología y la innovación. Todos los agentes deben contar con medios humanos y materiales para el desarrollo de su actividad e implicarse en el desarrollo de la política tecnológica que en cada caso se instrumente por las autoridades competentes.



Los agentes tecnológicos se clasifican en siete categorías:

#### RED VASCA DE TECNOLOGÍA

CATEGORÍA	Nº CENTROS ACREDITADOS A 31.12.2000
1.- Centros tecnológicos.....	9
2.- Centros, institutos, departamentos, secciones u otras unidades de investigación integradas en las universidades con sede en la CAPV.....	(1) 4
3.- Centros sectoriales de investigación.....	4
4.- Unidades de I+D empresariales.....	8
5.- Entidades de certificación y los laboratorios.....	3
6.- Organismos públicos de investigación.....	2
7.- Organismos intermedios de innovación.....	10
<b>TOTAL</b>	<b>40</b>

(1) Universidad del País Vasco, Mondragón Eskola Politeknikoa, Universidad de Deusto y Universidad de Navarra

### **1.- Centros Tecnológicos**

Son entidades privadas radicadas en la CAPV, sin fines lucrativos, para el desarrollo de tecnología propia y su difusión.

Sus estatutos deben exigir que, en caso de disolución, el patrimonio se aplique a la realización de actividades sujetas al cumplimiento de sus fines, siempre que la forma jurídica que adopten así lo permita.

En el centro deben participar mayoritariamente personas privadas. Sin embargo, su actividad no puede quedar restringida exclusivamente a sus miembros asociados o colaboradores, ni la pertenencia de empresas al centro tener carácter restringido.

### **2.- Centros, Institutos, Departamentos, Secciones u otras unidades de investigación integradas en las universidades con sede en la CAPV.**

Pueden integrarse en la Red siempre que realicen actividades de generación y desarrollo de tecnología, así como de transferencia y difusión de la misma con carácter general hacia el conjunto de empresas de la CAPV.

### **3.- Centros Sectoriales de Investigación**

Son centros privados radicados en la CAPV, sin ánimo de lucro, que realizan actividades relativas a la generación y desarrollo de tecnología dirigida a un sector empresarial determinado.

Sus estatutos deben exigir que el patrimonio, en caso de disolución, se aplique a la realización de actividades sujetas al cumplimiento de sus fines. En el centro deben participar mayoritariamente empresas privadas del sector al que se dirige. Su actividad no



puede quedar restringida exclusivamente a sus asociados, ni la pertenencia de empresas al centro tener carácter restringido.

#### **4.- Unidades de I+D empresariales**

Son entidades privadas sin ánimo de lucro radicadas en la CAPV dedicadas a la generación y desarrollo de tecnología e innovación según los intereses de sus propietarios.

Deben tener personalidad jurídica propia y en su constitución podrá participar una empresa o agrupación de empresas con objeto de acometer proyectos de investigación y desarrollo conjuntos.

Tienen también la consideración de unidades de I+D empresariales las unidades de I+D con personalidad jurídica propia y sin ánimo de lucro de hospitales privados situados en la CAPV.

#### **5.- Entidades de Certificación y los Laboratorios**

Pueden integrarse en la Red las entidades de certificación de carácter privado, con personalidad jurídica propia y sin ánimo de lucro radicadas en la CAPV y cuya finalidad sea la de establecer la conformidad de una determinada empresa, producto, proceso, servicio o persona a los requisitos definidos en normas o especificaciones técnicas.

Asimismo, los laboratorios de carácter privado, con personalidad jurídica propia y sin ánimo de lucro, radicados en la CAPV cuya finalidad sea la de comprobar que distintos productos presentes en el mercado cumplen con las normas o especificaciones técnicas que les sean de aplicación.

#### **6.- Organismos Públicos de Investigación**

Son entidades públicas, radicadas en la CAPV, que realizan actividades de generación, desarrollo, transferencia y difusión de tecnología, así como actividades relacionadas con los certificados de conformidad. También son organismos públicos de investigación las unidades de I+D de los hospitales públicos integrados en la Red de Osakidetza.

#### **7.- Organismos Intermedios de Innovación**

